

OPE
2007



2007ko
LEP

KODEA Lanpostua/k:

A-5022

PSIKOLOGOA, G.T.

1. ariketa. 2. proba

GALDERAK

Denbora, gehienez: 120 min.

EREDUA:

C

- Ez zabaldu esan arte.
- Proba bukatzean inprimaki hau zeurekin eraman dezakezu.
- Kontuan izan galdera bakoitzaren balioa, eman bazaio.
- Adi egon, identifikazio pertsonalerako txartela jaso diezazuten.
- Ez ahaztu ordezkagiria hartzea (irakurketa optikorako inprimakiaren beheko ezkerreko zatia).
- Adi egon, batera grapa ditzaten irakurketa optikorako orria, azaleko inprimakia eta zure erantzun-orriak.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

Galdera	Balioa	Galderaren idazkuntza
1	1,00	Azaldu gizarte-zerbitzuetako profesionalen betebeharrak, Euskal autonomia erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutunaren arabera (apirilaren 6ko 64/2004 Dekretua). Gehitu gutxienez hiru betebehar zerrendari. Adibidea: 1. Erabiltzaileekin finkatutako data eta epeak errespetatzea...
2	1,00	Gizarteratzeko Hitzarmenak arautzeko 1/2000 Dekretuaren 9. artikulua 9. ildotik, azaldu gizarteratzeko hitzarmenek izan ditzaketen ekintzak. Gehitu horietako gutxienez hiru ekintza zerrendari. Adibidea: 1. Osasun-sistema orokorrean sartzea erraztuko duten ekintzak, batez ere medikuntzako tratamendu bereziak behar direnean, edo desintoxikatze eta ohiturak galtzeko ekintzak.
3	1,00	Psikologoak, bere lanbidean “informazioa eskuratu eta erabiltzerakoan”, aintzat hartu beharreko elementu etikoak, Psikologoaren Deontologi Kodearen 39. artikulutik 49.era bitartekoen arabera. Gehitu gutxienez hiru gehiago zerrendari. Adibidea: 1. Psikologoak bakar-bakarrik bere zereginetarako behar duen informazioa eskuratuko du, eta beti ere bezeroaren baimena duelarik.
4	1,00	Adierazi Psikologia Komunitarioaren oinarriko hiru dimentsioak (Albée, Costa eta López, Roger Barker, Rappaport... eta gisako egileen arabera).
5	1,00	Gaitasun eredia (Albée, 1980; Costa eta López, 1983). Adierazi esku hartzearen funtsezko hiru helburu, osasun arazoak murrizteko.
6	1,00	Hainbat unibertitate forotatik, Psikologo Elkargo Ofizialetik eta argitalpenetatik adierazi izan dira, duela hamarkada bat baino gehiago, Gizarte Esku-hartzearen Psikologiaren esparruan psikologoek dituzten zeregin garrantzitsuenak. Adierazi bost edo gehiago. Adibidea: 1. Zuzeneko arreta (banakoei, taldeei edo komunitateei).
7	1,00	Dagoeneko klasiko bihurtua den formatua proposatu zuen Ernesto Lópezek bere argitalpenetan gizartean esku-hartzeko programak ebaluatzeak. Adierazi, gutxienez, horren bost atal. Adibidea: 1) Programaren egokitasuna ebaluatzea.
8	1,00	Azaldu “buffer efektua” laguntza sozialaren eta laguntza sare naturalen sorkuntzaren testuinguruan.
9	1,00	Depresioa kontzeptuatzeko “babesgabetasun ikasia”ri buruzko Seligmanen teoriak aplikazioak ditu Psikologia Komunitarioan. Defini ezazu teori hori, eta eman itzazu gai edo testuinguru komunitarioetako adibideak.
10	1,00	Defini ezazu trebetasun soziala, eta aipatu trebetasunik gabeko portaerak azaltzen dituzten eredu desberdinak (4), Trower, Bandura, Argyle eta besteren arabera.
11	1,00	Azaldu asertzio-portaeraren funtsezko osagai edo ezaugarriak (ikus Vicente Caballo, Mayor eta Labrador...).
12	1,00	Esku-hartzean zehar hainbat fasetan gauzatzen den prozesua da portaera-ebaluazioa: arazo diren portaeren definizioa, esku-hartzearen helburuak finkatzea, terapia-

		prozedurak hautatzea eta emaitzak ebaluatzea. Arazo diren portaerak zehaztasunez definitzeko analisi topografikoa egiten da. Zer erantzun jasotzen ditu? Zer neurri ezartzen ditu?
13	1,00	Ebaluazio psikometrikoari gagozkiolarik, defini itzazu, laburzki, hitz hauek: Fidagarritasuna, korrelazioa eta baliotasuna.
14	1,00	Ondorengo eskala, galdetegi, test, inbentario... zerrendatik, adierazi bakoitzaren helburua, aplikatzeko modua eta proba zein populaziori zuzendua dagoen. Adibidea: 1. EPQ: Nortasun galdetegia. Nortasunaren oinarrizko hiru dimentsio (ezegonkortasuna, kanporakoitasuna eta gogortasuna) eta zintzotasun eskala bat ebaluatzea. Banaka nahiz taldeka aplikatzekoa. G forma (8-15 urte) eta N forma (>16 urte). 2. ISRA, 3.TAMAI, 4. IAC
15	1,00	Definitu "antsietatezko atxikimendua" edo "ziurtasun gabeziako atxikimendua", eta horren sorreran eragin handiena duten aldagaiak, Jhon Bowbyren arabera.
16	1,00	Zerrenda itzazu ikerketaren eta balorazioaren faseetako bakoitzaren helburuak, haurren babesgabetasunaren alorrean.
17	1,00	Haurren babesgabetasunaren larritasuna ebaluatzeko irizpideak. Adierazi gutxienez lau aldagai. Adibidea: 1. Tratu txarren/abandonatzearen tipologia.
18	1,00	Buru nahasmenduen Diagnosi eta Estatista Esku-liburuak (DSM-IV) hainbat ardatzetako sistema bat aurkezten du, hainbat informazio arlori eta bestelako arretarazoei dagozkien ardatzekin. Adierazi bost ardatz. Adibidea: IV. ardatza: Arazo psikosozialak eta inguruarekikoak.
19	1,00	Egokitzeko arazoa (DSM-IV) diagnostikatzeko irizpideak. Zein agerpenen aurrean pentsatu beharra daukagu egokitzeko arazo misto baten aurrean gaudela?
20	1,00	Migrazio doluaren kontzeptua eta dolu hori faboratzen duten faktoreak.
21	1,00	Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua, 27/2003 legeak arautzen duena, salaketa prozedura erraz bat da, modu bizkorrean eta ebazpen judizial berean hainbat neurri penal, zibil eta sozial abian jar ditzakeena. Adierazi itzazu bi adibide aipatutako neurri-multzo horietako bakoitzeko.
22	1,00	Munduko Osasun Erakundearen datuen arabera, 65 urtetik gorako pertsonen % 25ek nahasmendu psikiatrikoren bat izan ohi du; ohikoena depresioa izaten da, 75 urtera arte. Faktore hauek aipatzen dira hirugarren adineko depresioa dela eta: aurretiko joerari dagozkionak (A), laguntzen dutenak (B) eta azkartzen dutenak (C). Adierazi bi elementu edo gehiago, faktore bakoitzeko. Adibidea: (A) Nortasun egitura, (B) Sozio-ekonomikoak, (C) Mendetasuna.
23	1,00	Erresilientzia: Kontzeptua. Eragiten duten faktoreak. "Leheneratze" kontzeptuarekiko ezberdintasunak.
24	1,00	EFQM eredu. Adierazi, laburzki, helburua eta egitura (9 irizpide).